

GIL 142 Gesaltza Añanako gatz-larrainak



Gesaltza Añana haranaren goiko aldeko begiratokitik.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42°48' 7,99" N
Long.: 2°59' 9,22" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 401.153,51 m
Y: 4.738.852,07 m



Nola iritsi

Gesaltza Añana herritik zenbait bide daude gatz ustiatzeko larrainetara iristeko. Gaur egun, gidari bat behar da sistemaren barnealdea bisitatzeko. Hala ere, aldamenetik, xehetasun guztiekin ikus daiteke ustiaketa tradizionalaren antolamendua eta forma. Nolanahi ere, San Joan Akrekoaren monasterioa toki paregabea da gatzaga ikusteko.



Zati berrizatuaren xehetasuna.



Gaur egun ere, larrain batzuk ustiatzen dira oraindik gatza ateratzeko. Argazkia: 'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jaurlaritza/Mikel Arrazola').

GILaren deskribapen laburra

San Joan Akrekoaren monasteriotik, gatzaga-haran osoa ikus daiteke. Y forma du, eta monasterioaren alde banatan burualdeko bi haran txiki daude; mendebalderantz, berriz, herriarekiko paralelo luzatzen da. Lurrunketa bidezko meategi bat da, erromatarren garaikoa. Bere gorenaldian, XX. mendearen erdialdean, 12 eta 20 metro karratu bitarteko 5.000 larrain inguru izan zituen. Gatza hegoaldeko haranaren buruan dagoen iturbegi hipergazi batetik dator. Handik, larrain-multzoetara banatzen da, grabitatez, kanal-sare baten bidez. Hasieran kanal gehienak lursailean egindako zanga sinpleak baziren ere, denborak aurrera egin ahala, enborrez ordezkatu ziren, gehienetan pinu-enborrez. Bana-tze-sistema nagusiak hiru kilometro baino gehiagoko luzera du.

Urak garraiatzen du gatza. Diapiroak (Coniaciarreko kareharriak, batez ere) akuiferoak zeharkatzen ditu, eta urak, astiro eta presiopean, diapiroan gora egiten du; igoera horretan, gatza disolbatzen da. Urak presio handia du, eta burbuilak eragiten ditu iturburuan garraiatzen dituen gasak deskonprimatzean; presio horren ondorioz, garraiatutako gatz-kantitatea oso handia da (190 gr/L-raino). Horrek erraztu egiten du ustiaketa eta gatz-kristalak sortzea ura lurruntzean.

Gaur egun, zati bat berriztatu eta egokitu egin da bisita gidatuak egiteko; hala ere, ustiatzea, oro har, nahiko hondatuta dago.

Behatzeko punturik onena

San Joan Akrekoaren monasterioa eta gatzagen begiratokia.



Ur gaziko iturburua; ur-burbuilak sortzen dira, urak garraiatzen dituen gasen deskonprimatzearen ondorioz.

Bisita gidatuetan, ur gaziaren ezaugarri sendagarriez goza daiteke.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 78, GIL 130, GIL 116, GIL 143.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 143.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				●
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Erromatar garaiko ustiapena.					
Oharrak:					

Bibliografía espezfikoa

- EGUILUZ, L.; LLANOS, H.; URIBE-ECHEBARRIA, P.; CAMARA, F.; GONZALEZ DE ASPURU, S. eta CERRAJERIA, J. I. (1988).- *Itinerarios ecológicos de Alava*. Eusko Jauriaritzako Ingurumen Saila, 110 or.
- EGUILUZ, L.; LLANOS, H. eta ULIBARRI, M. A. (1983).- *“El substrato rocoso elemento activo”*. Álava en sus manos, 1. liburukia, 105-134 or.
- EGUILUZ, L. eta LLANOS, H. (1988).- *“Aspectos hidrogeológicos del diapiro de Salinas de Añana (Alava)”*. Actas II Congreso geológico de España, 2. liburukia, 383-386 or.
- EGUILUZ, L. eta LLANOS, H. (1988).- *“El diapiro de Salinas de Añana: Un ejemplo de ascenso diapírico modificado por esfuerzos cizallantes”*. Actas II Congreso geológico de España, 2. liburukia, 131-134 or.
- MAGNA 137. zk.
- EVE, 137-II zk.
- Martínez-Torres, L. M. (1997). *Transversal a la Cuenca Vasco-Cantábrica. Introducción a la estructura y evolución geodinámica*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 121 or. ISBN: 84-7585-927-5.
- Martínez-Torres, L. M.; González-Tapia, J. R. eta Ramón-Lluch, R. (1992). *“Batimetría y propuesta de cartografía geológica del Lago de Arreo (Diapiro de Salinas de Añana, Alava)”*. Eusko ikaskuntza, Natur Zientzia Saila (in memoriam Prof. F. Ugarte), 20. liburukia, 123-134.
- Martínez-Torres, L. M. eta González-Tapia, J. R. eta Ramón-Lluch, R. (1992). *“Aspectos geóticos del Diapiro de Salinas de Añana”*. Actes du Colloque International du Sel. Argitaletxea: Jurade du Sel de Salies-de-Bearn, 145-155 or.
- Gómez Lasagabaster, J.I., Landa Esparza, M., Plata Montero, A., 2008, *“Salinas de Añana (Álava)”*, in Carrasco Vayá, J.F., Hueso Kortekaas, K. (Koord.), *Los paisajes ibéricos de la sal*. 1. Las salinas de interior, Guadalajara, 45-57 or.
- Landa, M., Lasagabaster, J.I., *“La recuperación integral del Valle Salado de Salinas de Añana: Gestión y método”*, in VII Congreso Nacional de Medio Ambiente
- Plata Montero, A., 2003, *“La aplicación de la Arqueología de la Arquitectura a un complejo productivo. El Valle Salado de Salinas de Añana (Araba)”*. Arqueología de la Arquitectura 2, 241-248 or.